



areatza

Martxoa 2017 Marzo 18 zk.

lantzen

Areatza prest! Badator Korrika!



- Arurrekontua onartuta
- Martxoak 8
- Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa
- Inauteriak

Telefonoak



Areatzako Udala

946 73 90 10

Parketxea

946 73 92 79

Gorbeialde Elkartea

946 31 55 25

Arratiako Udalen Mankomunitatea

946 31 17 17

S.O.S Deiak

112

Medikuaren kontsulta

946 00 74 63

Galdakaoko Ospitalea

944 00 70 00

Botika

946 73 93 22

Autobusak

Bizkaibus 902 22 22 65

La Unión 944 27 11 11

CEPSA

Larrialdiak (24 ordu)

902 10 02 24

**Bezeroarentzako arreta
(24 ordu)** 902 41 64 16

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

944 87 31 87

Iberdrola

944 15 14 11

Indarkeria matxistaren aurkako telefonoa

900 84 01 11

Udal Sareak

944 87 31 87

areatza

lantzen

Argitaratzailea: **Areatzako Udala**
Lege Gordailua: **BI-906-2016**
Diseinua, **IBEGRAFIK**
eta maketazioa: **www.ibegrafik.com**



Guardiako botikak

Apirilaren 3tik 9ra /maiatzaren 15etik 21era

Arrieta Bereciartua, Naiara.
Lemoa. Atutxa Salburua, 1.
Tel: 94 6313018

Apirilaren 10etik 17ra /ekainaren 5etik 11ra

Badiola Uriarte, M^a Nekane.
Artea. Herriko plaza, 7.
Tel: 94 6317311

Apirilaren 18tik 23ra/ maiatzaren 29tik ekainaren 4ra/ ekainaren 12tik 18ra/ ekainaren 26tik uztailaren 2ra

Traver Nicolau, Eduardo.
Bedia. J.A. Agirrerren Enparantza, z/g.
Tel: 94 6313950.

Apirilaren 24tik 30era/maiatzaren 22tik 28ra

Rodriguez Martinez, M^a Purificación.
Igorre. Lehendakari Agirre, 27.
Tel: 94 6736109

Maiatzaren 1etik 7ra

Goikoetxea Basterretxea, Pilar.
Dima. Ugarana, 33.
Tel: 946737054

Maiatzaren 8tik 14ra /ekainaren 19tik 25era

Zamalloa Asua, M^a Arantza.
Areatza. Askatasuna kalea, 15.
Tel: 94 6739322

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara
Gometza Onaindia, Ana.
Francisco Cortabarría, 2. Basauri.
Tel: 94 4490587



Autobus ordutegiak

Bizkaibus

Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

Lanegunetan/Laborables:
(lehenengoa/inicio) **05:00etan**
(ordu erdiro/cada media hora) **05:15etik 06:45era**
(orduro/cada hora) **06:45etik 21:45era**
Larunbatetan/Sábados:
(lehenengoa/inicio) **05:00etan**
(orduro/cada hora) **05:45etik 21:45era**

Jaiegunetan/Festivos (orduro/cada hora) **07:45etik 21:45era**

Bilbo-Galdakaoko ospitalea- Zeanuri

Egunero/Diario (orduro/cada hora) **06:15etik 22:15era**

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

*(Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide)
Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados

(bi orduro/cada dos horas) **06:45etik 20:45era**

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) **08:45etik 20:45era**

*(Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio)
Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados
(orduro/cada hora) **06:55etik 20:55era**

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) **08:55etik 20:55era**

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Egunero/Diario **06:45etik 20:45era**

*Otxandiora/a Otxandio (orduro/cada hora)

*Ubidera/a Ubide (orduro/cada dos horas)

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)
Lanegunetan/Laborables **07:00etan eta orduro 08:15etik 21:15era**

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos **(ez dabil/no circula)**

Bilbo- Lemoa- Zeanuri

 (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables **(orduro/cada hora) 07:00etatik 21:00etara**
Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos **(ez dabil/no circula)**



IBAI BAZTERREKO HESIA, IA PREST

Zubizarra zubiaren inguruan, errekaaren bazter bietan egurrezko hesia ipini dute udal brigadako langileek. Hesia ezarrita, alde batetik, ibai ondoko segurtasuna handitu eta, bestetik, Zubizarratik Bekokalerantz ibai paretik doan bidearen erabilera sustatu nahi izan du Udalak. Datozen asteetan paperontziak ere jarriko dira bide horretan, bertatik igarotzea erosoago eginez.

Horrez gain, komentu ondotik Arkotxaraino doan bidea zabaldu eta hesi bat ezartzeko aukera ere aztertzen ari da Udala; horrela, Lamino eta Arkotxa batuko lituzkeen bidea sortuko litzateke.

LA VALLA DE MADERA DE ZUBIZARRA ESTÁ CASI TERMINADA

La brigada del Ayuntamiento está terminando de instalar una valla de madera por las dos orillas del río, en el entorno de Zubizarra. De este modo, se quiere aumentar la seguridad y promover el uso de la zona. Próximamente se van a colocar papeleras, para comodidad de los/as viandantes.

Además, el Ayuntamiento está estudiando ensanchar y proteger con una valla el camino que va desde el convento hasta Arkotxa, uniendo así Lamino y Arkotxa.

HAINBAT DIRU-LAGUNTZA ESKATU DIRA

Hainbat erakundek (Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundia) hirigintza arloan egindako diru-laguntza deialdietan parte hartzeko proiektu desberdinak aurkeztu ditu Areatzako Udalak. Izan ere, proiektu batzuko oso garestiak dira eta ezinezkoa da Udalak berak bakarrik finantzatzea; horregatik, obra batzuk egiteko beste erakunde batzuen diru-laguntza deialdietan parte hartzea beharrezkoa da.

Hala, alde batetik, Eusko Jaurlaritzak Landa Garapenerako Agentzien inguruan egindako deialdian parte hartzeko hiru proiektu aurkeztu ditu Udalak: batetik, Mudejar eraikinaren fatxada konpontzeko proiektua; bestetik, Jubilatuen Elkartearen lokala berritzeko proiektua (komunak konpontzeko eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokitzeko); eta azkenik, Areatzatik Upo eta Mendiganera doan ibilbide labur berria seinalizatzen proiektua. Orain deialdi horien ebazpenen zain dago Udala.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak bi diru-laguntza deialdi egin ditu. Lehena, herrietako azpiegiturak hobetzeko diru-laguntza lortzeko deialdia da; kasu honetan, Areatzako Udalak Askatasun kaletik Gudarien plazara doan aldapan espaloiak egiteko proiektua aurkeztu du. Espaloi horiekin ibilgailuen abiadura murriztu nahi da, oinezkoen segurtasuna bermatuz eta oinezkoen gunea indartuz. Bigarrena, argiztapen sistema eraginkorrak ezartzeko diru-laguntza deialdia da; kasu honetan, Aita Añibarro Parkeko argiztapen sistema aldatzeko proiektua aurkeztu da, legez kanpo dauden "bola" itxurako luminariak aldatzea nahi da, parkeko argiztapen egoki eta eraginkorra lortuz.

Bizkaiko Foru Aldundiaren deialdi hauen kasuan ere, ebazpenaren zain dago orain Udala. Kasu batzuetan, diru-laguntza lortu ezean ezinezkoa izango da proiektuak burutzeko.

VARIOS PROYECTOS HAN SIDO PRESENTADOS EN DISTINTAS CONVOCATORIAS DE SUBVEN- CIONES

El Ayuntamiento de Areatza ha presentado varios proyectos para las convocatorias de subvenciones de urbanismo del Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia. Algunas obras tienen un coste muy elevado, y el Ayuntamiento no las puede llevar a cabo sin las ayudas de otras entidades.

Por un lado, el Ayuntamiento ha presentado tres proyectos en la convocatoria del Gobierno Vasco: el proyecto para arreglar la fachada del edificio Mudejar, otro para renovar el local de la Asociación de Jubilados/as, y otro proyecto para señalar el nuevo recorrido que une Areatza con Upo y Mendigane.

Por otro lado, han sido dos los proyectos presentados en la Diputación: el proyecto para hacer nuevas aceras en el acceso en cuesta que va desde la calle Askatasuna hasta Gudarien plaza para poder así ralentizar la velocidad de los vehículos, ampliar la zona peatonal y garantizar la seguridad de los viandantes; y el proyecto para cambiar el sistema de alumbrado del Parque Aita Añibarro, ya que las luminarias en forma de bola son ilegales.

El Ayuntamiento está a la espera de la resolución de todas las convocatorias.

DESTROZOS CAUSADOS POR EL VIENTO Y LA LLUVIA

EGURALDIAK KALTEAK ERAGIN DITU

Otsailaren 12ko haize bolarada bortitzek hainbat kalte eragin zituzten Uposagarra eta Upoko basoetan. Uposagarran 90 bat pinu jausi edo jausteko zorian gelditu ziren; Upon hiru hektareatan landatuta egon diren Douglas espezieko izeien %75 inguru bota zituen haizeak, 500 zuhaitzetik gora, hain zuzen. Une honetan, jausita edo jausteko arriskuan dauden zuhaitzak mozten eta neurtzen ari da Udala (Aldundiko baso zerbitzuarekin batera). Lan horiek amaitu arte ezingo da zehaztu haizeak eragindako kaltea zenbaterainokoa izan den.

Horrez gain, euririk ere egin zituen bereak herrian. Iturrimorro inguruko horma batek kalteak jasan zituen, eta egoerak okerrera egin baino lehen konpondu egin du Udalak.

Las fuertes rachas de viento del 12 de febrero derribaron o dejaron a punto de caer a unos 90 pinos en Uposagarra y echaron al suelo más de 500 abetos que estaban plantados en Upo, destruyendo entorno al 75% de la plantación. El Ayuntamiento (junto con el servicio de montes de la Diputación) está sacando los árboles caídos y talando los que están a punto de caer. Una vez terminado el trabajo, se podrán cuantificar los daños causados por el viento.

Además, durante el invierno, las lluvias provocaron desperfectos a una pared de Iturrimorro. El Ayuntamiento ya lo ha arreglado.



BILTEGIEN BERRANTOLAKETA

Udalak orain arte erabiltzen zituen biltegiak berrantolatu ditu azken hilabeteetan. Prozesu horren ondorioz biltegi bi hustu egin dira, Askatasun kaleko 42. eta 14. zenbakian kokatuta zeudenak (azken hori Gorbeialde entitatearekin kolaborazioan zegoen alokatuta); beste biak, Askatasun kaleko 1. zenbakikoa eta Karpokoa, berregituratu egin dira.

Hustutako biltegi horietan material zaharra eta, kasu batzuetan, erabiliko ez den materiala gordetzen zen; horrenbestez, material horretatik gehiena pisura saldu da. Beste gauza batzuk, berriz, beste biltegi batzuetan birkokatu dira. Berrantolaketa horri esker Udalak alokairu gutxiago ordaindu beharko du, urtero 5.285 euro aurreztuz.

Prozesua amaitzeko, Udalak dituen baliabideen inbentario berria egingo da eta funtzionamendu on baterako beharrezko den materiala erosiko da.

REORGANIZACIÓN DE ALMACENES

El Ayuntamiento ha reorganizado los almacenes que utilizaba hasta ahora; ha vaciado los dos que estaban situados en los números 42 y 14 de la calle Askatasuna, y ha reorganizado los otros dos localizados en Karpo y en el número 1 de Askatasuna. En los almacenes vaciados se guardaba material antiguo y material que no se utilizaba, por lo que una parte del material se ha vendido, y la otra parte se ha reubicado.

Gracias a esta reorganización, el Ayuntamiento va a ahorrar 5.285 euros cada año en alquileres. Para culminar el proceso, se realizará un nuevo inventario.



PARKE BIO-OSASUNGARRIAK

Ospitalosten kokatutako parke bio-osasungarrien instalazioak aprobetxatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak abiarazitako ekimen batean parte hartuko du Areatzako Udalak. Ekimen horri esker, Aldundiko begirale bat herrira etorriko da herritarrei parke bio-osasungarrien instalazioak erabiltzen irakasteko; maiatzean hasita, zortzi saio eskainiko dira (astean behin), aurrerago zehaztuko den egun eta ordutegian. Horretarako, gutxienez bost eta gehienez hogei pertsonako taldeak osatuko dira. Ez dago parte hartzeko adin zehatzik. Ikastaroak doakoak dira, eta parte hartu nahi duenak udaletxean eman behar du izena bertara joanda edo deituta, lehenbailehen.



PARQUES BIO-SALUDABLES

Con el fin de aprovechar las instalaciones de parques bio-saludables existentes en el municipio, concretamente en Ospitaloste, el Ayuntamiento va a participar en una iniciativa de la Diputación, en la que un/a monitor/a se encargará de enseñar a los/as vecinos/as interesados/as a utilizar los parques, acudiendo para ello a Areatza. Las sesiones comenzarán en mayo, y se realizarán ocho sesiones gratuitas (una a la semana), en días y horarios aún por concretar. Para participar no hay ninguna franja de edad establecida, y es necesario apuntarse en el Ayuntamiento lo antes posible.



ABEREENTZAKO ESKORTA PAGOMAKURREN

Abereentzako eskorta konpondu egin da Pagomakurren, Areatzako Udalak eta Upokolupetza Abeltzainen Alkartek sustatuta. Eskorta abereak sartzeko itxitura bat da, eta animalien zamaketarako eta osasun tratamenduak egiteko erabiliko da. Lanek 4.000 euro inguruko kostua izan dute, eta %40 inguru Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzari esker finantzatu da.

MANGA PARA ANIMALES EN PAGOMAKURRE

Se ha arreglado la manga para animales localizada en Pagomakurre, gracias a la colaboración entre el Ayuntamiento de Areatza y Upokolupetza Abeltzainen Alkartea. La manga se utilizará para la carga y descarga de animales, así como para hacerles distintos tratamientos sanitarios. Los arreglos han tenido un coste de 4.000 euros, y entorno al 40% ha sido financiado por el Gobierno Vasco.

ALDAKETAK PISZINETAN

Iazko udatik martxan egon ondoren, piszinetako taberna ustiatzeko kontratua bertan behera geratu zen otsailean. Horrenbestez, orain taberna ustiatzeko kontratua esleitzeko beste deialdi bat egingo da, uda baino lehen taberna berriz ere martxan egon dadin eta herritarrei zerbitzu hori berriz ere eskaini ahal izateko.

Kontratua esleitzeko aurreko deialdietan oso hautagai gutxi aurkeztu direnez, Areatzako Udalak erabaki du deialdiaren oinarrietan aldaketa batzuk sartzea, jende gehiago erakartzeko helburuarekin.

Obrak

Horrez gain, udan igerilekuak ahalik eta erarik egokienean zabaltzeko, hurrengo hilabeteetan zenbait obra egingo dira. Bi esparru hobetzea izango da egingo diren hobekuntzen helburua:

Alde batetik, sarrerak eta irteerak hobeto kontrolatzeko eta piszinetako aforoa eta segurtasuna bermatzeko igerilekue-tako sarreran tornu bat ipiniko da.

Bestetik, igerilekuen barruan erabiltzaileen erosotasuna areagotzeko, igerilekua inguratu eta pasabide bezala erabiltzen diren egurrak aldatu egingo dira, bere ordez hormigoi inprimatua ezarriz. Goiko komunetarako bidea ere hobetuko da. Honekin batera lurzoruan drainatze lanak egingo dira, lurrak arnasa har dezan.

Tornoa ezartzearen kostua 10.164 eurokoa da eta igerilekue-tako obrak egiteko dagoen aurrekontua, berriz, 24.873 eurokoa da.

CAMBIOS EN LAS PISCINAS

Después de que en febrero se suspendiera el contrato para la explotación del bar de las piscinas, el Ayuntamiento realizará próximamente una nueva convocatoria con el fin de que se abra el bar antes de verano. Se cambiarán algunas bases del concurso, para intentar que se presenten más candidatos/as que en las convocatorias anteriores.

Obras

Además se van a hacer varias mejoras. Por un lado, se va a colocar un tornu para poder controlar mejor las entradas y salidas, el aforo y, por tanto, la seguridad de las piscinas. Por otro lado, se van a cambiar las maderas que rodean la piscina por cemento impreso, y se va mejorar el camino que va hacia los baños de arriba. Además, se drenará el suelo para que la tierra respire mejor.

El presupuesto para las obras de las piscinas es de 24.873 euros. La instalación del tornu cuesta 10.164 euros.



GAZTELEKUKO ETA LUDOTEKAKO KONTRATUA UZTAILEAN ESLEITUKO DA

Areatzako gaztelekua eta ludoteka Suspergintza enpresak kudeatzen ditu, Areatzako Udalarekin daukan kontratu bati esker. Kontratu hori 2016ko abenduan bukatzekoa zen, eta Udalak uztailean arte luzatzea erabaki du, ikasturtean etenaldirik ez dadin egon; ez da, aurreko urteetan bezala, gehiago luzatuko.

Izan ere, Udalak uste du kontratu berri batek gaur egungo beharrianetara egokitzeko eta programazio egokia egin ahal izateko aukera emango dituela. Urrian ipiniko da martxan bi espazioak kudeatzeko kontratu berria, 2017/2018 ikasturtearekin batera.

EL CONTRATO PARA LA GESTIÓN DE LA LUDOTECA Y EL GAZTELEKU SE ADJUDICARÁ EN JULIO

El contrato para la gestión de la ludoteca y el gazteleku se adjudicará en julio, para que no haya interrupción alguna durante el curso escolar.

El Ayuntamiento cree que es necesario un nuevo contrato donde se contemplen las necesidades actuales, así como elaborar una programación adecuada. El nuevo contrato se pondrá en marcha en octubre, con el inicio del nuevo curso.

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA DERRIGORREZKOA 50 URTETIK GORAKO ERAIKINETAN

Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa eraikinen egoera ikuskatzeko azterketa tekniko bat da. Azterketa horietan eraikinen hezetasunak, arrakalak edota deformazioak ikuskatzen dira, higiezinaren hainbat lekutan, besteak beste, egituran, fatxadan, estalkian eta ur sare komunitetan. EITa arkitektura arloko profesionalak egin behar dute, baina higiezinaren jabeek dagokie EITa kontratatu eta ordaintzea. Horrenbestez, higiezinaren jabeen komunitateen bitartez egitea gomendatzen da.

2017ko ekainaren 27an 50 urte edo gehiago dituzten eraikinek 2018ko ekainaren 28rako EITa eginda izan beharko dute. Eraikinak 50 urte 2017ko ekainaren 28tik aurrera betetzen baditu, orduan 50 urte betetzen dituenetik urtebeteko epea egongo da EITa egiteko. Azterketa egin ondoren, agiria udaletxean aurkeztu behar da, ondoren Udalak informazioa EAEko erregistrora igortzeko.

Beraz, derrigorrezkoa da EITa egiteko betebeharra daukaten herritarrek lan horri ekitea. Informazio gehiago nahi dutenek www.euskoregite.eus ataria bisita dezakete.

INSPECCIÓN TÉCNICA DE EDIFICIOS

La Inspección Técnica de Edificios es un examen en el que se evalúan distintos aspectos en las fachadas y/o cubiertas de los edificios, entre otras características. La inspección deben llevarla a cabo los/as profesionales del ámbito de la arquitectura, pero es deber de los/as propietarios/as contratarla y abonarla. Por lo tanto, se recomienda realizar la ITE mediante las comunidades de propietarios/as.

Los edificios que el 27 de junio de 2017 tengan 50 años o más tendrán plazo hasta el 28 de junio del 2018 para realizar la inspección. En cambio, si el edificio cumple 50 años después del 28 de junio de 2017, lo tendrá que hacer en el plazo de un año, contando desde el día en que los cumple. Después de realizar la inspección, el documento que así lo acredite debe ser presentado ante el Ayuntamiento, para que este lo envíe al registro de la CAV.

Es obligatorio que los/as vecinos/as que deben realizar la ITE de sus edificios aborden ese cometido. Los/as interesados/as pueden consultar más información en www.euskoregite.eus.

ALDAKETAK UDALEKO LANTALDEAN

Azkenaldian zenbait aldaketa izan dira udaleko langileen plantillan. Alde batetik, brigadako langile Pedro Iturrate bajaran dago, eta bi langile ari dira lanean orain bere ordez, hain zuzen ere, Aitor Loiola eta Ibon Landajo, iaz egindako lan poltsako zerrendatik hartutakoak. Bestalde, hilabete batzuetan kanpoan egon den idazkaria, María Urrutia, gurera bueltatuko da laster, eta, horrenbestez, bere ordez egon den Egoitz Jaio agurtuko dugu.

CAMBIOS EN LA PLANTILLA MUNICIPAL

La plantilla municipal ha sufrido varios cambios en los últimos meses. Por un lado, Pedro Iturrate, operario de la brigada, se encuentra de baja, y ocupan su lugar Aitor Loiola e Ibon Landajo, ambos pertenecientes a la bolsa de trabajo del año pasado. Por otro lado, María Urrutia está a punto de volver a su puesto de trabajo, con lo cual, nos despediremos de su sustituto Egoitz Jaio.

HURBILTASUN ZERBITZUAREN BERRI EMATEKO KANPAINA

CAMPAÑA DE PROMOCIÓN DEL SERVICIO DE PROXIMIDAD

Areatzako Udalak, Arratiako Gurutze Gorriarekin elkarlanean, herriko pertsona nagusiei zuzendutako hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, tartean tokiko hurbiltasun zerbitzua izenekoak. Zerbitzu horren bitartez, sare familiar edo sozial txikia duten pertsona nagusiek, bakarrik bizi badira eta hala nahi badute, Arratiako Gurutze Gorriaren telefono dei bat jaso dezakete hamabost egunik behin; dei horien helburua gure herriko nagusiak nola dauden jakin, zerbait behar duten galdetu eta jarraipen telefonikoa egitea da. Horrela, isolamendua, bakar-dadea eta beste hainbat egoera ekidin nahi dira. Bide batez, deia jasotzen duen pertsonak kontsulta, tramite edota herritik kanpo betebeharren bat egin behar badu, Arratiako Gurutze Gorriaren laguntasuna opatuko zaio, eta horretarako garraio egokituaren zerbitzua baliatu dezake. Zerbitzua doakoa da herritarrentzat.

Zerbitzua jende nagusiarentzat pentsatuta badago ere, beste norbaitek interesa badauka informazioa eskatu edo izena eman dezake udaletxera zein Arratiako Gurutze Gorrira deituz (94 673 62 62).

El Ayuntamiento de Areatza, en colaboración con la Cruz Roja de Arratia, ofrece varios servicios dirigidos a las personas mayores, entre ellos el denominado servicio de proximidad. Se trata de un servicio dirigido a las personas con una reducida red familiar o social, que, viviendo solas, y si así lo desean, pueden recibir una llamada telefónica de la Cruz Roja de Arratia cada quince días. El objetivo de dichas llamadas es mantener una comunicación regular con los/as mayores de nuestro municipio, y de esta manera, se quieren prevenir situaciones como el aislamiento, la soledad y otras situaciones. Además, si la persona receptora de la llamada necesita realizar alguna consulta o trámite fuera de Areatza, el servicio prestado por Cruz Roja podrá acompañarle en esas tareas, ofreciendo para ello los vehículos de transporte adaptado. El servicio es gratuito.

Aunque el servicio este pensado para personas mayores, si alguna otra persona está interesado/a puede solicitar más información o inscribirse llamando al Ayuntamiento o a la Cruz Roja de Arratia (94 673 62 62).



MARTXOAREN 8AK ALDARRIKAPENEZ BETE DU ARRATIA

Aurten ere, Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan hainbat ekintza egin dira gure eskualdean. Alde batetik, Areatzan, martxoaren 9an, Shakti Olaizolaren "...Irakurriz" zirkua eta antzerkia nahastuen emanaldiarekin gozatu ahal izan zuten adin guztietako herritarrek. Emanaldiaren aurkezpena emakume bi gogoratzeko aprobetxatu zen: Maria Elena Maseras Ribera mediku eta pedagogoa eta Malala Yousafzair ikasle eta aktibista. Beste alde batetik, aurten ere, eskualde mailako ekintza bi egin dira: martxoaren 8an, kontzentrazioa egin zen Igorren, eta martxoaren 12an Arratia mailako mendi martxa egin zen, Arteatik abiatuta.

Oraindik bidea egiteke

Horiek guztiak eta gehiago ere beharrezkoak dira berdintasunerantz bidea egiten jarraitzeko. Izan ere, bide horretan au-

rrerapauso asko eman badira ere, genero indarkeria (gero eta hildako gehiago), askatasun sexualaren aurkako mugimenduak eta emakumeen pobrezia krisiaren ondorio dela entzutea, besteak beste, eguneroko kontuak dira. Beraz, Areatzako Udalak egunero aldarrikapen horri ekiten segitzeko eta Emakumeen Nazioarteko Egunean zein Homofobia, Lesbofobia, Transfobia eta Bifobiaren Aurkako Egunean (maiatzak 17) eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean (azaroak 25) ere kalera irteten jarraitzeko deia egiten du.

Jabekuntza Eskola

Bide hori jorratzen jarraitzeko, Arratia mailan Jabekuntza Eskola martxan dago iaztik. Lehen urtea beteko du laster, eta horren balorazioa egin eta datorren ikasturteko ikastaroen proposamenak plazaratzeko bilera bat deitu da maiatzaren 27an, 10:00etatik 13:00etara, Arantzazun. Metodologia parte-hartzailea erabiliko da batzarrean, eta luntxari eta Clown Conclusiones izeneko saioei esker goiza oraindik ere eramangarriago izango da.

Gutuna Foru Aldundira

Bizkaiko Foru Aldundiak orain arte 5.000 biztanle baino gutxiagoko herriei diru laguntza ematen zien berdintasun politikak lantzeko. Orain, laguntza horiek kendu egin ditu, argudiatu dutenez, hainbat udalek aurkeztutako gastuen zuriketetako ekintzak ez direlako berdintasun politikak bultzatzeko izan. Laguntza hori kentzeak eragin negatiboa izango du berdintasun politiketan, emakume talde eta elkarteetan eta gizarte orokorrean. Eta, orain artekoa mantendu nahi bada, udal bakoitzak konpromisoa hartu beharko du bere aurrekontutik diru gehiago jartzeko. Hori guztia salatzeke, martxoaren 21ean Arratiako hainbat udalek eta emakumeen elkarten ordezkariak egindako batzarrean gutun bat prestatzea erabaki zen, Arratiako udalek sinatuta eta eskualdeko emakume talde eta elkarten babesarekin Aldundian aurkezteko.

Carta a la Diputación

La Diputación Foral de Bizkaia ha suprimido la subvención para fomentar políticas de igualdad en municipios con menos de 5.000 habitantes. Eliminar esa ayuda supone que los Ayuntamientos tendrán que aportar más dinero de sus propios presupuestos para poder mantener las actividades actuales. Para denunciar esta situación, en una reunión realizada el 21 de marzo entre representantes municipales y de asociaciones de mujeres se decidió redactar un escrito para, con la firma de los ayuntamientos y con el respaldo de las asociaciones de mujeres de Arratia, presentarlo en la Diputación.



8 DE MARZO

Con motivo del Día Internacional de las Mujeres se han llevado a cabo diversas actividades tanto en Areatza como en Arratia. Las personas que se acercaron a Areatza tuvieron la oportunidad de disfrutar de la actuación "...Irakurriz", de Shakti Olaizola. A nivel comarcal, el 8 de marzo se celebró una concentración en Igorre, y el día 12, en Artea, tuvo lugar una marcha de montaña.

Todas estas actividades y muchas más son aun necesarias para trabajar a favor de la igualdad, ya que, desgraciadamente, a día de hoy la violencia de género, los actos contra la libertad sexual, o la precariedad de las mujeres siguen siendo noticia. Por todo ello, sigue siendo necesario seguir trabajando para mejorar la situación y continuar participando en las movilizaciones, entre otras citas, también durante el 8 de marzo, el 17 de mayo (Día Contra la Homofobia, Lesbofobia, Transfobia y Bifobia) y el 25 de noviembre (Día Internacional Contra la Violencia de Género).

Escuela de Empoderamiento

La Escuela de Empoderamiento de Arratia es una de las iniciativas que están en marcha para trabajar a favor la igualdad. El 27 de mayo, de 10:00 a 13:00, en Arantzazu, se va a celebrar una reunión para valorar el recorrido de su primer año, y también se van a recoger distintas propuestas para trabajar el curso que viene. La metodología participativa, un lunch y una sesión de Clown Conclusiones auguran una mañana divertida.



AREATZAKO GURE ESKU DAGO GALDEKETA PRESTATZEN HASI DA

Martxoaren 24an Areatzako Gure Esku Dago lantaldeak bilera zabala egin zuen, herri galdeketa egiteko aukera aztertut, plazaratu eta herritarrekin partekatuzko, eta aurrera eramateko erabakia hartzeko.

Azken hiru urteetan egin diren ekintzen errebasoa egin ondoren, Anartz Goiak, Goierriko Koordinazio arduradunak, eta Lierni Olmedok, Debagoieneko koordinatzaileak, beraien eskualdeetan izandako esperientzien berri eman zuten. Hala, aldarrikapenetatik erabakitzena pasatu behar dela esanez, hainbat eta hainbat herritan egiten ari diren bezala, Areatzan ere aurten herri galdeketa antolatuzko proposamena egin zuen lantaldeak, baita horretarako data iradoki ere: azaroaren 5a; batetik, Gure Esku Dagoen ikurra 5 atzamarrek osatzen dutelako, bestetik, emakumeek lehen aldiz erreferendum batean bozkatu ahal izan zuten data ere badelako (1933ko azaroaren 5a), eta, azkenik, azaroan beste galdeketa olatu handi bat etorriko delako.

Hortaz, lantaldeak hurrengo hileetako egitasmoen egutegia aurkeztu zuen; herri galdeketa antolatzeari begira lehenengo pausoa elkartea sortzea da. Ondoren, sinadurak biltzeko kanpaina abiatuko dute; gero, galdera adosteko batzarrak antolatuko dira, eta uda partean, berriz, finantzaketa kanpaina abiaraziko dute. Udazkenean, ostera, informazio kanpaina martxan jarriko dute, eta, azkenik, azaroaren 5ean, herri galdeketa egingo da.

GURE ESKU DAGO ORGANIZARÁ UNA CONSULTA

El 24 de marzo el grupo de trabajo local de Gure Esku Dago realizó una reunión abierta a la ciudadanía en la que compartió con los/as vecinos/as la opción de realizar una consulta popular en Areatza.

En el acto repasaron las distintas acciones llevadas a cabo, y Anartz Goia y Lierni Olmedo, responsables de coordinación de Goierri y Debagoiena respectivamente, compartieron su experiencia. Posteriormente, el grupo de trabajo de Areatza propuso realizar una consulta, y fijó también la fecha para ello: el 5 de noviembre.

El primer paso para poder realizar la consulta consiste en formar una asociación. Después, pondrán en marcha una campaña para recoger firmas, y más tarde se convocarán reuniones para concretar la pregunta a consultar. El verano arrancará con una campaña para lograr financiación, y en otoño, antes de la consulta de 5 de noviembre, tendrá lugar una campaña informativa.



2017. URTEKO AURREKONTUA, ONARTUTA

Urtarrilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, 2017. urterako aurrekontua onartu zuen Areatzako Udalak, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJ-PNV alderdiaren aurkako botoekin.

Udalen funtzionamenduan aurrekontuak oso tresna garrantzitsuak dira; izan ere, aurrekontuak ebazten du, neurri handi batean, urtean zehar egingo diren inbertsioak eta gastuak, gero, urtean zehar, aurrekontuan aldatetaren bat egin behar dela erabakiz gero, aurrekontua alda daitekeen arren. Horrez gain, oposizioak eta herritarrek Udalaren jarduna kontrolatze-

ko ere balio du aurrekontuak, eta, hortaz, tresna garrantzitsua denez, Areatzako Udalak herritarren iritzia jakin nahi izan du; horregatik, aurtengo aurrekontua prestatzeko ere parte hartze kanpaina abiatu zuen Udalak. Kanpaina horretan batutako ekarpen eta proposamenak aurrekontuan jaso ditu. Horrekin batera, Areatzako Udalak informazio gardena eta ulerterraza eskaini nahi die herritarrei, eta, horrenbestez, aurrekontua bera eta bestelako entitateen informazioa eskainiko da jarraian.

Diru-sarrerak

Areatzako Udalaren diru-sarrerarik garrantzitsuena (aurrekontuaren %58) beste erakunde batzuetatik jasotzen da; batez ere Bizkaiko Foru Aldunditik jasotzen da dirua, baina badira Eusko Jaurlaritzatik datozen partida txiki batzuk ere. Kasu honetan, sarrerarik nagusia Udalkutxa izeneko da, eta Aldundiak ematen du; azken urteetan partida hori murriztu egin da (diru gutxiago jaso du Areatzako Udalak).

Horrez gain, Udalak dirua zergetatik ere jasotzen du (bigarren diru-sarrerarik handiena, aurrekontuaren %15). Hemen sartzen dira herritarrek ordaintzen dituzten tokiko zergak (Ondare Higiezinaren gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, Gainbalioaren gaineko Zerga, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga eta Ibilgailuen gaineko Zerga). Bidenabar, sarreren %12 herriko ondaretik dator: basoen salmentak batez ere. Sarrera hauek ezin dira erabili edozein gauzatarako, batez ere inbertsioak egiteko erabili behar dira. Azkenik, sarreren %8 inbertsioak egiteko diru-laguntzak dira (horretarako proiektu bat aurkeztu behar da eta proiektua onartuz gero, diru-laguntza horretarako erabili behar da). Diru-laguntzak ez du, normalean, proiektu horren kostu osoa betetzen, eta beraz, beste sarreretatik ere dirua hartu behar izaten da. Azken partidak oso txikiak dira, alde batetik finantzekin lotutako sarrerak dira, eta beste alde batetik Udalak kobratzen dituen tasak daude (adibidez, ikastaroen sarrerak, igerilekuko sarrerak, udalekuak, fotokopiak, etab.)

2017KO SARRERAK

- ZERGAK
- TASAK ETA BESTE BATZUK
- ERAKUNDEETATIK DIRU SARRERAK
- ONDARE SARRERAK
- INBERTSIOAK EGITEKO DIRU SARRERAK
- FINANTZA ALDAERAK



2017. urterako aurrekontua: gastuak

Aurrekontuko partidarik garrantzitsuena (gastuen erdia) zerbitzu arruntak ordaintzeko erabiltzen da: kaleko argiak, ura, eraikinen gastuak eta abar. Hurrengo partidarik handiena, (gastuen %18), udal langileak ordaintzeko erabiltzen da. Gastuen %17 inbertsioetan gastatuko da; gogoratu behar da horretarako ezinbestekoa dela diru-laguntzak lortzea. Azken partidak, txikiak, udalaren diru-laguntzak (elkarteentzat, euskara ikasteko, etab.), Hobetze Fondora doan dirua, eta finantza gastuak dira (Udalak baditu oraindik bueltatu behar dituen mailegu batzuk, eta horiek korrituak sortzen dituzte).

2017KO GASTUAK

- LANGILEEN SARRERAK
- ZERBITZU ETA ONDASUN ARRUNTAK
- DIRU TRANSFERENTZIA ARRUNTAK
- INBERTSIOAK
- AREATZA 1338 SL
- HOBETZE FONDOA
- FINANTZA GASTUAK



Parte-hartze kanpaina: herritarren iradokizunak nola jaso daitezke aurrekontuan?

Areatzako Udalak herritarren iradokizunak jasotzeko parte hartze kanpainak egin ditu 2016an eta 2017an; aurreko aldirian azaldu bezala, aurrez aurreko saioak, gutunontziak eta posta helbide bat eskuragarri jarri ziren horretarako, besteak beste. Kanpaina horretan jasotako proposamen nagusiak eta horiei aurrekontuan emandako lekua taula honetan ikus daitezke:

AURREKONTUAK

PROPOSAMENAK	AURREKONTUA
HIRIGINTZA	
Oinezkoen gunea indartzea	
- Seinaleak, komunikazioa eta sustapen politikak	20.000 €
- Espaloi berriak	20.000 €
- Parking berria	50.000€ (%50 diru-laguntza)
GUZTIRA	90.000€ (25.000€ diru laguntza)
Udal azpiegiturak hobetu	
- Udaletxeko <i>velux</i> ak aldatu	6.000 €
- Aldamin Taberna egokitu	10.000 €
- Igerilekuak (egurrak aldatu, goiko komuneko pasabidea konpondu, drainatze lanak, etab.)	20.000 €
- Haurreskolako konponketak	4.000 €
- Haurrentzako jolas parkeak	12.000 €
- Kirol eraikinen mantentze lanak	6.000 €
- Ludoteka	3.000 €
Energia eraginkortasuna	
- Argien auditoria	8.400€ (%50 diru-laguntza)
- Argiztapen proiektua	20.000€ (%80 diru laguntza) +10.000€
Udal eraikin eta esparruen antolaketa	
Basogintza, larreak egitea	43.000 €
UDAL ANTOLAKETA	
Udal zerbitzuak hobetu	
- Langile berriak (brigadako langile bat 7 hilabetez, idazkari bat, langile gehigarri bat)	Horretarako, langileen soldaten partida %7 igo da.
- Artxiboa	25.410€
- Igerilekuetako zerbitzua: tornea, informatizazio prozesua,...	13.000€
- Diagnostikotik ateratako proposamenak aurrera ateratzea: espedienteak kudeatzea, erregistro protokoloak, funtzioak,...	4.000 €
Protokoloak ezartzea	
- Txakurren kudeaketa	3.800 €
- Arratoiak eta saguak	1.452 €
- Elurretarako protokoloa: gatza, langileak, makineria,...	10.000 €
Udal kontuen kontrola, auditorietza	
	7.260 €
KULTURA ETA EUSKARA	
Euskara	
- UEMA	5.500 €
- Euskara ikasteko diru laguntzak	7.000 €
- Toponimia ikerketa	19.200 €
- Berbalagun proiektua	3.600 €
- Korrika	600 €
KOMUNIKAZIOA ETA PARTE HARTZEA	
Parte hartzea sustatzea	
Parte hartzea sustatzeko partida	5.000 €
Komunikazioa hobetzea	
Areatza Lantzen (aurrerantzean 16 orrikoa izango da; orain arte gehienetan 12 orrikoa zen)	6.000 €
Webgunea berritu	Zehaztu gabe
GIZARTE GAIAK	
Droga kontsumoa prebenitu	
Diagnostikoa (2016-2017), Mankomunitatearekin batera	
Diagnostikoa ikusita, esku hartzea	5.000 € (erabakitzeke, Mankomunitateak edo Udalak egingo duen)
Gazteentzako Plana	
Hiru urterako plana, Arratiako gainerako herrieekin batera	7.000 € inguru urtero (zehazteke)
Jubilatuena Lokala	
Udal eraikinen diagnostikoa eta Jubilatuen Elkarte aintzat hartuta	Zenbatekoa zehaztu barik

Areatza 1338 SL

Areatza 1338 SL Areatzako Udalak sortutako sozietate publiko bat da. 2002. urtean sortu zen, eta langile bat dauka, lanaldi erdian. Sozietatearen helburua zabala da, Areatzako hirigintzarekin lotuta dauden hainbat ekintza daude bere estatutuetan, besteak beste, lurren promozioa, etxebizitzak eraikitzea eta saltzea, etab. Hala, momentu honetan sozietateak Karpon dituen etxebizitzak alokairu sozialean kudeatu, Ospitalosteko garajeak eta Goikokaleko etxebizitzak saldu eta alokatu eta Auzokar proiektua kudeatzen du.

Sozietatearen akzionista bakarra Udala da, eta, horrenbestez, sozietatearen ondarea Udalarena da, baina zorrak ere, eta Udalak bere aurrekontuan partida batzuk ditu horretarako. 2017an, esaterako, Udalaren aurrekontutik 37.000 euro sozietate honi transferituko zaizkio. Horrez gain, Areatza 1338 SLren aurrekontua Udalaren aurrekontuarekin batera onartu behar da, biak lotuta daudelako.

Une honetan sozietateak honako hau dauka:

- 4 etxebizitza Goikokaleko 14-16 zenbakian
- 9 etxebizitza Karpon, garaje eta trasteroekin
- Ospitalosten dauden garajeak: 13 garaje eta 3 trasteleku
- Ilargi kaleko solarra
- Haurtzaindegiko eraikina
- Auzokarreko autoak

Horiek denak ordaintzeko diru-laguntza publikoak eta maileguak erabili dira. Horren ondorioz, une honetan Areatza 1338 SLk 1.136.443,51 euroko zorra du finantza erakundeekin; kopuru hori ia-ia Areatzako Udalaren urte bateko aurrekontu osoaren parekoa da.

EL PRESUPUESTO PARA 2017, APROBADO

En la sesión plenaria celebrada el 19 de enero se aprobó el presupuesto para el año 2017, con los votos a favor de EH Bildu y con los votos en contra de EAJ-PNV.

El presupuesto es una herramienta muy importante para un ayuntamiento, porque establece, en gran medida, los gastos e inversiones que se realizarán durante ese año, aunque posteriormente puedan realizarse modificaciones presupuestarias, si se estima conveniente. Sirve, así mismo, para que la oposición

y la ciudadanía puedan controlar la acción municipal. Por eso, para el Ayuntamiento de Areatza es muy importante que se recabe la opinión y las sugerencias de la población, a través de las campañas de participación organizadas al efecto. Además, el consistorio quiere ofrecer a la ciudadanía información de una manera más fácil y transparente, por lo que en las próximas líneas puede encontrarse información acerca del presupuesto y otras entidades.

Ingresos

La mayor parte de los ingresos del Ayuntamiento de Areatza (el 58%) proviene de otras instituciones, principalmente de la Diputación Foral de Bizkaia, aunque también hay algunas pequeñas partidas transferidas desde el Gobierno Vasco. La mayor partida se denomina Udalkutxa, y llega desde la Diputación; a lo largo de los últimos años esta partida ha ido disminuyendo (el ayuntamiento recibe menos dinero).

Además, el ayuntamiento también recauda dinero a través de los impuestos (segunda fuente de ingresos más grande, 15%). En este ámbito se recogen las aportaciones de la ciudadanía a través de los impuestos locales (IBI, IAE, ICIO, Impuesto sobre Plusvalías y el Impuesto de Circulación). Además, el 12% de los ingresos proviene del patrimonio del municipio, sobre todo de la venta de bosques. Esos ingresos no pueden destinarse a cualquier fin, sobre todo se emplean en inversiones. Por último, el 8% de los ingresos proceden de subvenciones (para eso es necesario presentar un proyecto, y si se acepta, la subvención recibida debe usarse para ello). Normalmente no cubren el total del importe, así que para llevar a cabo dichas inversiones suele ser necesario hacer uso de otras fuentes de ingresos. Las últimas partidas son muy pequeñas, y están relacionadas con las finanzas y con las tasas cobradas por el consistorio (ingresos procedentes de las matrículas de los cursos, fotocopias, etc.).

INGRESOS DE 2017

- IMPUESTOS
- TASAS Y SIMILARES
- SUBVENCIONES PÚBLICAS
- INGRESOS DEL PATRIMONIO
- SUBVENCIONES PARA INVERSIONES
- VARIACIONES FINANCIERAS




Presupuesto para el año 2017: gastos

La partida más importante (la mitad de los gastos) se destina a financiar los servicios corrientes del municipio: la luz de las calles, el agua, los gastos de los edificios, etc. La siguiente mayor partida (18% de los gastos) se emplea para pagar al personal del ayuntamiento. El 17% se destina a inversiones; se debe tener en cuenta que cuando se obtienen subvenciones, sólo se puede dedicar esa partida a esas inversiones en concreto. Las partidas más pequeñas corresponden a las subvenciones concedidas por el ayuntamiento (para las asociaciones, para aprender euskera, etc.), el dinero destinado al Fondo de Mejora, y los gastos financieros.

GASTOS DE 2017

- GASTOS LABORALES
- SERVICIOS Y GASTOS CORRIENTES
- SUBVENCIONES CORRIENTES
- INVERSIONES
- AREATZA 1338 SL
- FONDO DE MEJORA
- GASTOS FINANCIEROS



Campaña de participación: ¿cómo se plasman las aportaciones de la ciudadanía?

El Ayuntamiento de Areatza ha realizado dos campañas de participación (de cara a los presupuestos de los años 2016 y 2017) para recabar las opiniones de la ciudadanía y plasmarlos en el presupuesto, habilitando para ello una dirección de e-mail, varias urnas y también sesiones participativas presenciales. Las principales propuestas planteadas en dicha campaña y su reflejo en el presupuesto pueden verse en la siguiente tabla:

PRESUPUESTOS

Areatza 1338 SL

Areatza 1338 SL es una sociedad pública del Ayuntamiento de Areatza, que se constituyó en el año 2002. Tiene una trabajadora a media jornada, y su objeto social es muy amplio; se refiere sobre todo a llevar a cabo acciones relacionadas con el urbanismo de Areatza (promoción de suelo, construcción y venta de inmuebles, etc). En este momento, la sociedad gestiona las viviendas localizadas en Karpo, y vende y alquila los garajes de Ospitaloste y las viviendas de Goikokalea. Además, gestiona el proyecto Auzokar.

El Ayuntamiento es el único accionista de la sociedad; por tanto, el patrimonio de la sociedad es del Ayuntamiento, pero también sus deudas. Para ello, el ayuntamiento prevé en sus presupuestos varias partidas para ello. En el año 2017, por ejemplo, se destinarán 37.000 euros a la sociedad.

En este momento la sociedad tiene 4 viviendas en Goikokale, 9 viviendas con garaje y trastero en Karpo, 13 garajes y 3 trasteros en Ospitaloste, un solar en la calle Ilargi, el edificio de la guardería y los vehículos del proyecto Auzokar.

Para financiarse, la sociedad ha recibido subvenciones públicas y préstamos bancarios, cuya deuda asciende a 1.136.443,51 euros, cantidad similar al presupuesto anual del Ayuntamiento de Areatza.

PROPUESTAS	PRESUPUESTO
URBANISMO	
Reforzar la superficie peatonal	
- Políticas de promoción, comunicación y señalización	20.000 €
- Nuevas aceras	20.000 €
- Nuevo parking	50.000€ (subvención de 50%)
EN TOTAL	90.000€ (subvención de 25.000€)
Mejorar las infraestructuras municipales	
- Cambiar los <i>velux</i> del ayuntamiento	6.000 €
- Adaptación de Aldamin Taberna	10.000 €
- Piscinas (cambiar la madera, arreglar el paso hacia los baños de arriba, tareas de drenaje, etc.)	20.000 €
- Arreglos en la haurreskola	4.000 €
- Parques infantiles	12.000 €
- Tareas de mantenimiento de los edificios deportivos	6.000 €
- Ludoteca	3.000 €
Eficacia energética	
- Auditoría lumínica	8.400€ (subvención de 50%)
- Proyecto de iluminación	20.000€ (subvención de 80%) +10.000€
Organización de locales y zonas municipales	
Montes, pastos	43.000 €
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL	
Mejora de servicios municipales	
- Nuevos puestos de trabajo (trabajador/a de brigada durante 7 meses, secretario/a, un puesto de trabajo adicional)	Para ello, se ha subido el presupuesto un 7%
- Archivo	25.410€
- Servicio de piscinas: turno, proceso informático,...	13.000€
- Desarrollo de las propuestas derivadas del diagnóstico: gestión de expedientes, protocolos de registro, funciones, etc.	4.000 €
Implantación de protocolos	
- En relación con perros y similares	3.800 €
- En relación con ratones y ratas	1.452 €
- Para nevadas: sal, trabajadores/as, maquinaria, etc.	10.000 €
Control de las cuentas del Ayuntamiento, auditoría	7.260 €
CULTURA Y EUSKARA	
Euskara	
- UEMA	5.500 €
- Subvenciones para aprender euskara	7.000 €
- Investigación toponímica	19.200 €
- Proyecto Berbalagun	3.600 €
- Korrika	600 €
COMUNICACIÓN Y PARTICIPACIÓN	
Promoción de la participación	
Partida para promocionar la participación	5.000 €
Mejorar la comunicación	
Areatza Lantzen (en adelante tendrá 16 páginas; hasta ahora muchas veces tenía 12 páginas)	6.000 €
Renovar la página web	Por concretar
POLÍTICAS SOCIALES	
Prevenir el consumo de droga	
Diagnóstico (2016-2017), conjuntamente con la Mancomunidad	
Intervención, después de terminar el diagnóstico y a la vista de los resultados.	5.000 € (aún por decidir si se realizará conjuntamente con la Mancomunidad, o solamente como Ayuntamiento)
Plan para la juventud	
Plan trianual, conjuntamente con los demás municipios de Arratia	7.000 € por año (por concretar)
Local de los/as jubilados/as	
Teniendo en consideración la Asociación de Jubilados/as y el diagnóstico de los edificios municipales	Por concretar

SANTA AGEDA AREATZAN



Usadioari jarraituz, aurten ere Santa Ageda bezpera ospatu da herrian. Arratsaldean, Guraso Elkarteak antolatuta, areatzarrek Santa Agedako koplak abestu zituzten herriko hainbat txokotan. Kantaldia plazan amaitu zuten, eta txokolate beroa hartuz Arratiako Koruari itxaron zioten. Izan ere, urtero legez, Bizkaiko hainbat herritan kantatu ostean, Arratiako Korua Areatzara etorri zen eguneko azken koplak abestera. Itxaronaldia arintzeko, txokolateaz gain, salda beroa hartzeko aukera egon zen. 22:15 aldera iritsi ziren abesbatzako partaideak, tartean herritar ugari, eta emanaldiarekin bukatzeko, “Agur jaunak” abestu zuten.

SANTA AGUEDA EN AREATZA

También este año se ha celebrado la víspera de Santa Agueda en Areatza. Durante la tarde, organizado por Guraso Elkartea, varios/as vecinos/as y niños/as interpretaron las melodías tradicionales por el pueblo, terminando en la plaza, donde pudieron reponer fuerzas mientras esperaban al coro de Arratia. Y es que, como todos los años, tras recorrer distintos pueblos de Bizkaia, el coro de Arratia puso fin al tradicional festejo con la inmejorable actuación ofrecida en Areatza.



INAUTERIAK AREATZAN

Urtero bezala, aurten ere inauteriak primeran ospatu ziren Areatzan; hala, ostiralean, otsailaren 24an, inauteri jaia egin zen eskolan, eta haur zein gurasoak mozorrotu ziren. Haurrek, gainera, dantza eta kantu emanaldi ederrak eskaini zituzten. Egun berean, halaber, txokolatada eta tailerrak ere prestatu zituzten. Inauteri jaiak hurrengo egunean ere jarraitu zuen, eta hainbat herritar elkartu ziren hotelean prestatutako bazkarian, asko eta asko mozorrotuta. Ondoren, BatucAKKB batukada taldeak emanaldi bikaina eskaini zuen herriko kaleetan barrena, eta haur zein helduek DiskBreakersen doinuekin gozatu zuten Gaztetxean. Kirolerako tartea ere izan zen inauterietan, frontenis txapelketako finalak eta mendi irteera ere antolatu baitziren asteburu horretan. Hala, giro aparta sortu zen egun guztietan.

CARNAVALES EN AREATZA

Las celebraciones de Carnaval empezaron el viernes 24 de febrero en Areatza. Las familias se disfrazaron para la fiesta de la escuela, y pudieron disfrutar con las actuaciones de los/as alumnos/as. El mismo día hubo talleres y chocolate para todos/as, y el siguiente día multitud de vecinos/as acudieron disfrazados/as a la comida organizada en el Balneario. El grupo de batukada BatucAKKB y DiskBreakers en el Gaztetxe añadieron el toque musical a la fiesta, en la que también hubo espacio para el deporte, con la salida al monte y las finales del campeonato de frontenis.



BADATOR KORRIKA!

Bi urterik behin gertatzen den moduan, aurten ere abiatu da euskararen aldeko lasterketa. 20. edizio honek Otxandio izan du abiapuntu, eta apirilaren 9an Iruñera helduko da. Tartean Areatza ere zeharkatuko du, hain zuzen ere, apirilaren 7an, goizaldeko 02:00ak inguruan. Arteatik iritsiko da, eta herriko alde zaharra bisitatu ondoren aurrera jarraituko du.

Harrera beroa egiteko herria apaindu ondoren, apirilaren 6an ere herria girotzeko hainbat jarduera prestatu ditu Areatzako Korrika Batzordeak, tartean musika, jolasak edota Korrika Txikia. Korrika goizaldean iritsi arren, Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu kalera atera eta Korrikarekin bat egin dezaten.

¡YA ESTÁ AQUÍ KORRIKA!

La 20. edición de la carrera a favor del euskera ha arrancado ya desde su punto de partida, Otxandio, para llegar el 9 de abril a su destino, Iruñea. Durante su trayecto visitará también nuestro municipio, concretamente el día 7 de abril, a las 02:00 de la mañana, y tras cruzar el casco histórico, seguirá su camino.

El municipio se encuentra ya adornado para la ocasión, y además Areatzako Korrika Batzordea ha organizado también varias actividades para la víspera, como por ejemplo música, juegos y la Korrika Txikia. El Ayuntamiento de Areatza quiere animar a todos/as los/as vecinos/as para que se unan a esta iniciativa a favor del euskera.

BERBALAGUN PROIEKTUA ARRAKASTAZ ABIATU DA

Udalak, AEKren bitartez, euskara ahoz praktikatzeko Berbalagun egitasmoa jarri zuen martxan otsailean, eta arrakasta handiz abiatu da. Izan ere, dagoeneko 18 bat lagun batu dira, lau taldetan banatuta. Helburua, esan bezala, euskara praktikatzea da, tabernan mahai baten inguruan eserita zein bestelako jarduerak eginez.

Egitasmoan edozein herritar apuntatu daiteke, edozein euskara maila duela ere; horretarako udaletxera edo/eta Arratiako AEK euskaltegira deitu behar da.

EL PROYECTO BERBALAGUN ARRANCA CON ÉXITO

El Ayuntamiento de Areatza, a través de AEK, ha puesto en marcha el proyecto Berbalagun, para practicar euskara en un ambiente distendido, y la iniciativa ha arrancado con éxito, ya que el proyecto cuenta ya con unos/as 18 participantes.

Cualquier vecino/a puede inscribirse, independientemente de su nivel de euskera. Para eso es necesario llamar al ayuntamiento o al euskaltegi de AEK de Arratia.

UEMAko TEKNIKARIK, LANEAN

Areatzako Udala UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) sartu zenez, UEMAK bi euskara teknikariren laguntza eskaintzen digu; bi teknikariek arlo ezberdinetan egingo dute lan, batek udal barruan eta besteak herrian eta herritarrekin.

Udal barruan euskararen erabileran diagnostikoa egiten ari da teknikaria dagoeneko, udal langile eta zinegotziekin batera. Diagnostiko honetan udal barruko dokumentuak, udalean sortzen diren harremanak, Udalak herrian jartzen dituen kartel edo/eta seinaleak eta bestelakoak aztertuko ditu. Diagnostiko hori egin eta gero udal barruan euskararen erabilera sustatzeko eman beharreko pausoak zehaztuko dira.

Herriari dagokionez, datozen hilabeteetan hainbat pauso emango dira euskarari dagokionez: herriko saltoki eta ostalaritzan euskararen erabileraren diagnostikoa egingo da, eta ondoren saltoki horiei zenbait euskarri eskainiko zaizkie beraien negozioetan ematen duten informazioa euskaraz jartzeko. Saltokiko jabeentzat doan izango da. Horrez gain, herrian jaiotzen diren haurrentzat ere ekimen bat abiatuko da, eta haur eta gurasoak batuko dituen tailer ere bat egingo da. Azkenik, Euskal Herritik kanpoko lekuetatik Areatzara etorritako pertsonentzat triptiko bat prestatuko da, tokiko hizkuntzaren, euskararen, inguruko informazioarekin.

Goian aipaturiko ekimenak herritarrentzako doanik izango dira, Udalak UEMA barruan egoteagatik ordaintzen duen kuota barruan sartzen baitira. Ekimen eta kanpaina bakoitzari buruzko informazioa dagokionean zabaldu eta sakonduko da.

UEMA TRABAJA YA A FAVOR DEL EUSKERA EN AREATZA

El Ayuntamiento de Areatza cuenta con la ayuda de dos técnicos/as de euskera de UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea), ya que el consistorio se ha incorporado a dicha mancomunidad recientemente.

Uno/a de los técnicos/as está haciendo un diagnóstico del uso del euskera dentro del consistorio, analizando para ello documentos internos, así como carteles y señales. Después, se concretarán los pasos a seguir para fomentar el uso del euskera dentro del consistorio.

El/la otro/a técnico/a llevará a cabo otro diagnóstico sobre el uso del euskera en el municipio; para ello, durante los próximos meses se van realizar sendas iniciativas relacionadas con los comercios y hostelería del municipio, suministrando distintos soportes en euskera para ello. Además, se pondrá en marcha un taller para niños/as y padres y también se realizará una campaña dirigida a los/as recién nacidos/as. Por último, se repartirá un tríptico con información para vecinos/as llegados desde otros lugares.

Todas las iniciativas serán gratuitas para los/as vecinos/as, ya que entran dentro de la cuota que abona el Ayuntamiento por formar parte de UEMA.



150 ZUHAITZ LANDATU DITUZTE PAGOMAKURREN

Eguraldi ederrarekin ospatu zen Zuhaitz Eguna martxoaren 11n. Areatzako hainbat guraso eta ume animatu ziren zuhaitz landaketa egitera. Gorbeiaiko Parke Naturaleko bazozainak gomendatuta, Pagomakurreko gunen batean landatu zituzten 150 zuhaitz; pagoak, lizarrak, urkiak eta haritzak, hain zuzen ere. Ordu eta erdi aitzurrarekin beharrez aritu ostean, Upoko makatzean egin zuten hamaiketako; txitxi-burdundutzi eder batekin amaitu zuten goiza.

150 ÁRBOLES EN EL ZUHAITZ EGUNA

El buen tiempo acompañó al Zuhaitz Eguna el 11 de marzo. Varios/as vecinos/as y familias de Areatza plantaron en Pagomakurre un total de 150 árboles, concretamente, hayas, fresnos, abedules y robles, siguiendo las recomendaciones de los guardas forestales. Después de una hora y media trabajando, recuperaron las fuerzas con un hamaiketako, en Upo.



areatza
lantzen



Areatzako Udala



@areatzako_udala